

# HARRI BAT POLTSIKOAN

Nerea Loiola



igelioigela

# HARRI BAT POLTSIKOAN

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurkitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. edizioa: 2018ko ekainean*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Rocio Irigoyen

© Nerea Loiola

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-320-6

L. G.: SS-562/2018

Erein argitaletxea  
Tolosa Etorbidea 107  
20018 Donostia  
T 943 218 300 F 943 218 311  
e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)  
[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.  
Araba kalea 45  
20800 Zarautz  
T 943 835 008 F 943 130 822  
[edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)  
[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Nerea Loiola

# HARRI BAT POLTSIKOAN

Marrazkiak: Rocio Irigoyen



igelioigela 43

*Imanoli esker hasitako abentura,  
Xuhar eta Andonirentzat.*

# 1

## SALTXITXA ITXURAKO ARRAINAK

**S**aiatu zarete inoiz arraintxoak marrazten?  
Jakingo duzue orduan ez dela batere lan erraza.

Xanari arrainak saltxitxa itxurarekin ateratzen zaizkio, edo hori da berak pentsatzen duena behintzat.

Xana ez da oso ume luzea, ez da semaforoak bezain luze behintzat. Baina ez da txiki-txikia ere, sukaldeko goiko kaxoira erraz iristen da eta. Ez dago gizona nahiz eta txokolatea eta txorizo panplona oso gustuko dituen. Ezta argalegia ere, praka bakeroak lotu eta ez baitzaizkio orkatiletara erortzen. Begiak borobil-borobilak ditu; eta bi begien artean... Ai ene!... ba al dakizue zer daukan bi begien artean?

## SU DU RRA

Alegia, Xana 8 urteko beste edozein ume bezalakoa da. Eta ume guztiei bezala egunkaria irakurtzea eta hortzak garbitzea gustatzen zaio.

Ez ba! Ume guztiei bezala, gehien-gehiena, jolastea gustatzen zaio.

Azkenaldian, ordea, ez dabil oso gustura, nahiko triste sentitzen da egia esan. Gertatzen zaiona da ikusten dituela beste guztiak bera baino indartsuago, ikusten dituela beste guztiak bera baino azkarrago, bera baino argiago, altuago, ausartago, politago, trebeago.

Inbidiaz ikusten du Izarne ondoko gelakoak nola egiten duen korrika eskaileretan gora, binaka igotzen dituelako eskailerak eta berak, ordea, banan-banan igo behar izaten dituelako estropezurik egin nahi ez badu. Askok gustatzen zaio nola irakurtzen dituen ipuinak bere anaia Xabik, Basajaunen ahotsa izugarri ondo egiten duelako. Eta maite du nola margotzen duen itsasoa bere lagun Malenek.

Malenek munduko itsasorik politena margo-tzen du, argitsua, arraintxo txikiz betea eta itsasontzi pirata beldugarri bat eta guzti!

Baina berari itsasoa ilunegia ateratzen zaio, bere arrainek saltxitxa itxura dute eta itsasontzi piratak... Ai! Itsasontzi piratak beldurra eman beharrian, txalupatxo bat dirudi.

Horregatik, eskailerak korrika igotzeari utzi dio Xanak azkenaldian, ez ditu lehen bezain beste ipuin irakurtzen eta bere margoek denbora gehiegi daramate estutxe barruan.





## TXIRRISTA BABESLEKU

Astelehen goiza da gaur eta Xana ikastolan dago. Pasillo guztia zeharkatu eta eskuinaldean gelditzen den gela da berea. Azken aste hauetan marinelei buruz ikasten ari dira eta leiho ondoko mahai batean eserita dago, Malen ondoan duela. Kontzentratuta dabil margotu berri duen balea bat guraizeekin mozten, eta andereñoak galdetu dio:

–Xana, irakurriko diguzu mesedez arbelean jartzten duena?

–Eee... ba ba... bai –erantzun du Xanak urduri, baina ez da irakurtzen hasi.

–Hasi zaitetz ba! –andereñoak berriz.

Xanak irakurtzen hasi nahi du, baina ezin du. “Ez dut ondo irakurriko”, pentsatu du, “ez dut ondo irakurriko, ez dut ondo irakurriko”. Albo batera begiratu eta Malenen begiradarekin topo egitean, gehiago urduritu da. Ingurura begiratu, eta, denak berari begira daudela ikusi duenean, are urduriago jarri da. “Ez dut ondo irakurriko” hasi zaio errepikatzen bere buruari behin eta berriz. Hainbeste aldiz pentsatu du hori, non azkenean, guztiz etsita, aulkitik salto egin eta gelatik korrika atera den, negarrez.

Pasilloa zeharkatu du ahalik eta abiadura handiengan eta kanpora atera da. Jolastokira iritsi denean, txirrista azpira sartu eta hantxe gelditu da bil-bil eginda, burua belaun artean sarturik eta negarrari eutsi ezinik.

Txirrista azpiko toki hori berezia eta kuttuna izan da beti Xanarentzat. Hiru urterekin, korrika ari zela erori eta konturatu zen txirrista azpialdean azenario irribarretsu bat zegoela marraztuta. Hain zen barregarria azenario hori, hartutako mina pixka bat arindu zitzaion. Egun hartatik aurrera,



Xanak toki hori bilatzen du hobeto sentitu nahi duen bakoitzean.

Azenarioari begira jarri orduko, andereñoa azaldu da txirrista ondora, ederki ezagutzen baitu Xanaren babeslekua.

–Zer gertatzen zaizu, Xana?

–Ez dakit. Ez dut hitz egin nahi –esan du Xanak ahapeka, begirada azenarioritik kendu gabe.

Andereñoa pentsakor gelditu da une batez, eta azkenean esan dio:

–Ondo da, ez dugu orain gertatutakoaz hitz egingo nahi ez baduzu. Baina zer iruditzen, zure etxekoei deitu eta egoera azaltzen badiet? Horrela lasaiago zaudenean beraiekin hitz egingo duzu, ados?



Xanak ez dauka oso garbi etxekoekin gaiaz hitz egin nahi duen edo ez, baina une horretan bakean uztea nahi duenez, baiezko keinua egin dio buruarekin andereñoari.

